

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 34 item. • Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

HEGOAK EBAKI DIZKIETE

Zientzia-fikzioa dirudi, baina gero eta gehiago ari da zabaltzen droneen presentzia gure zeruetan. Militarren tresna izan dira urteetan, armadek beren etsaiei erasoak egiteko. Baina urteek aurrera egiten duten neurrian, askotariko aginduak bete ditzaketela erakutsi dute: mezulari-lanetan, kostaldearen zainketan, bideogintzan, obren azterketan edota kirol-ekitaldietan ikus daitezke gaur. Ikerketa-arloan ere lortu dute beren lekua, informazioa eta argazki ikusgarriak biltzeko gaitasuna dute eta.

Piloturik gabeko hegazkinak dira droneak. Urrundik edo automatikoki kontrola daitezke, GPS bitartez. Jostailu itxura badute ere, arriskutsuak izan daitezke, ez badira era egokian erabiltzen. Droneen erabilera nabarmen hazi da denbora laburrean, eta munduko enpresa multinazional boteretsuenek begiz jo dituzte jadanik, Googlek, Facebookek eta Amazonek, kasurako. Adituek diote hemendik urte batzuetara milaka dronek hiriak hartuko dituztela eta autoek duten besteko presentzia izango dutela.

Pauso teknologiko inportantea izan arren, ezin daiteke uka zabaltzen ari den merkatuan sortu den txalaparta. Hori dela eta, droneen erabilera mugatzeko neurriak hartzen hasia da Espainiako Gobernuak. Lurreratzea behartu, eta orain arte izandako hazkundeari mugak jarri nahi dizkio. Ohar bat plazaratu du oraintsu, droneak ezin daitezkeela helburu komertzialetarako erabili gogorarazteko. Gainera, adierazi du prestatzen ari den araudia onartu bitartean ez duela inolako baimenik emango droneak profesionalki erabili eta horien truke etekinak lortzeko. Espainiako Gobernuak jakinarazi du badagoela helburu militarretarako dekretu bat, baina horretarako soilik; aire bidezko gainerako eginkizunetarako inoiz ez dela baimenik egon.

Gauzak horrela, droneen garraioa eta erabilera-guneak erregulatzeko araudi berri bat martxan jarri nahi du Madrilek, orain arteko legedi

gabeziari aurre egiteko. Droneak erabiltzeko baldintzak, toki mugatuak eta segurtasun-neurriak zehaztuko ditu. Horrela, Espainiako Gobernuak ez du «gaizki-ulerturik» egotea nahi, eta ohartarazi du droneak baimenik gabe erabiltzen duenak dagozkion isun ekonomikoak ordaindu beharko lituzkeela. Gaur egun, erabat itxita dauden guneek, industria-pabiloiek edo kiroletarako erabiltzen direnek esate-baterako, ez lituzkete neurri horiek bete beharko. Jabeek dagokie droneen erabilera baimentzea edo ez onartzea eta ezbeharrak gertatuz gero, beraien ere bada ardura.

Lehenbiziko begi-kolpean, neurriak hartzea «erabat bidezkoa» iruditzen zaie droneen erabiltzaileei. Beren ustez, gaur egun hutsune legal handia dagoela ikusita, badirudi gaur egun edonork eros dezakeela horrelako tresna bat, airean jartzeko, ezer jakin gabe. Baina ezin da ahaztu dronea airean doala eta edozein unetan erort daitekeela; beraz, oso arriskutsua izan daiteke. Eguraldia ere aintzat hartu behar da. Horregatik, erabiltzaileen ustez, debekatzea ez, baina arautzea ona izango da, kontrol eta baldintza zehatz batzuk jartzeko, erabilera desegokiak beste pertsona batzuen segurtasunarekin jokatzeko dakarrelako. Jostailu bat da, baina ez haurrentzat, eta jende askori prestakuntza falta zaio. Kontrola eta esperientzia behar dira tresna hauek erabiltzeko. Hala ere, droneen erabiltzaile askoren esanetan, Espainiako Gobernuak araudia aterako du, eta lizentzia ordaintzera behartuko ditu erabiltzaileak, besterik ez. Ordaindu eta kito!

VITORIA, Oihan. Berria. 2014ko otsailaren 30a. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer dira droneak?

- a) Zientzia-fikziozko hegazkin militarrik.
- b) Hasieran tresna militarrik, baina gaur egun helburu askotarako diren tresnak.
- c) Ikerketa-arloan armadak erabiltzen dituen tresna pilotatuak.

2. Nolakoak dira droneak?

- a) Era egokian erabilia ere, beti arriskutsuak diren hegazkinak.
- b) Arriskurik gabeko jostailu moduko hegazkinak.
- c) Desegoki erabiliz gero, arriskutsuak izan daitezkeen hegazkinak.

3. Zer diote adituek droneen etorkizunaz?

- a) Droneen presentzia nabari handituko dela.
- b) Hemendik urte batzuetara autoen ordez erabiliko ditugula.
- c) Mila drone nahiko izango direla hiriak hartzeko.

4. Zergatik hasi da Espainiako Gobernua neurriak hartzen?

- a) Droneek sortzen duten zaratagatik.
- b) Teknologia berriei mugak jartzeagatik.
- c) Sortzen ari den merkatuan eduki duten oihartzunagatik.

5. Zer egoeratan daude droneak une honetan?

- a) Bakarrik profesionalek erabil ditzakete etekinak lortzeko.
- b) Helburu militarretarako erabiltzeko daude baimenduta.
- c) Aire bidezko propaganda komertziala egiteko daude onartuta.

6. Zer arautu nahi du Madrilgo Gobernuak araudi berriarekin?

- a) Lekuaren araberako segurtasun-neurriez gain, nola eta nork erabil ditzakeen.
- b) Erabiltzeko baldintzez gain, toki guztietan erabiltzeko araudia eta segurtasuna.
- c) Beharrezko segurtasun-neurriez gain, non eta nola erabili ahalko diren.

7. Zer gertatzen da erabat itxita dauden guneeetan?

- a) Droneen jabeek bete behar dute gune irekietarako araudia.
- b) Leku horien jabeek erabakitzen dute droneak erabiltzea ala ez.
- c) Jabeek dagokie erabakia hartzea, baina Gobernua da erantzulea ezbeharretan.

8. Zer deritzote droneen erabiltzaileek neurriak hartzeari?

- a) Egoki, betiere debekatzeko neurriak jartzen badira.
- b) Egoki, denen eskura egotearen aldekoak direlako.
- c) Egoki, betiere beren erabilera arautzen bada.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

ELIKAGAIK SEGURUAGO KONTSUMITZEKO ETA ETEKIN HOBEA ATERATZEKO

Etxean janaria alferrik ez galtzeko, garrantzitsua da erosketak planifikatzea eta arretaz erreparatzea iraungitze-datari eta kontsumo-data gomendatuari.

Elikagaiak alferrik galtzeak guztioi eragiten digu: kontsumitzaileei, elikadura-arloko industriari, ostalaritzaren arloari... Espainiako estatuan, adibidez, urtean zortzi milioi tona elikagai galtzen dira alferrik. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak (MAGRAMA) zenbait neurri sustatu ditu zifra hori erdira jaisteko 2020. urterako. Elikagai gehien zer esparrutan galtzen den ere adierazten dute datuek: etxean. Kontsumitzaile gisa, gure esku dago joera hori geldiaraztea eta elikagai gutxiago alferrik galtzea. **9**

Erosketak egin aurretik, hozkailuari eta biltegiari begiratu bat ematea komeni da, horrela jakingo baitugu zer falta den eta zer elikagai diren lehenengo jatekoak. **10** Erosi ostean, elikagaiak hozkailuan eta biltegian jartzean, lehenengo iraungiko direnak, hau da, kontsumo-epea lehenengo amaituko zaienak jarri behar dira aurrean eta erosi diren azkenak atzean. Elikagaiak kontserbatzeko, argi- eta tenperatura-baldintzak zaindu behar dira, ekoizleak etiketan adierazten dituen baldintzetan. **11**

Elikagairik alferrik ez galtzeko, lagungarria da elikagaien etiketak arretaz irakurtzea. Hor agertzen da informaziorik funtsezkoena, iraungitze-data eta kontsumo-data gomendatua, alegia. **12**

Iraungitze-data. Egun horretatik aurrera produktua ez da kontsumitu behar, baina lasai kontsumi daiteke egun horretan bertan. **13** Etiketan edo ontzian iraungitze-data ageri da, ordena honetan emana: eguna, hilabetea eta urtea.

Kontsumo-data gomendatua. **14** Bi kontzeptu horiekin batera, kontserbatzeko baldintzei buruzko informazioa ere agertzen da etiketan (tenperatura, argia, hezetasuna). Ekoizleak ematen dituen gomendio horiek aintzat hartu ezean, gerta liteke produktuaren ezaugarri batzuk aldatzea.

Janarien hondarrei ahalik eta etekinik handiena ateratzen asmatuz gero, askoz elikagai gutxiago galduko dira alferrik, baina jakin egin behar da hori nola egin eta zer baldintza zaindu elikagai horiek kontserbatzeko. **15** Bi ordu baino gehiago eman badute egoera horretan, bota egin behar dira janari-hondarrak. Oilasko errea, adibidez, gisatuak egiteko erabil daiteke. Haragia, oro har, hiru egunetan eduki daiteke hozkailuan behin egin eta gero, ez gehiago. Elikagai guztiak ontzi hermetikoetan sartu behar dira, eta bizpahiru egun egin ditzakete gehienera ere, arrautzekin egindako platerak izan ezik, horiek berehala jan behar baitira. Arrainak, itsaskiak eta saltsak bereiz gorde behar dira, eta, gehienez, hogeita lau orduz egon daitezke hozkailuan. Ontzietan dagokienez, ez da komeni oso sakonak izatea, janaria azkarrago hoztu dadin. **16** Hozkailuan, goiko aldean jarriko ditugu janari-hondarrak, prozesatu gabe dauden elikagaiak ez ditzaten kutsatu. Izozteko asmotan bagabiltza, hozten utzi behar dira izoztu aurretik, eta hiru hilabete pasatu baino lehenago jan behar dira, behin izoztuta. Desizozteko mikrouhin-labea erabil daiteke (denboraz larri bagabiltza), edo hozkailua bestela (gau osoan bertan utzita). Behin desizoztu diren janari-hondarrak ez dira berriz ere izoztu behar.

<Consumer.es>, 2014ko urtarrila.Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Osasun- eta kalitate-kontrol zorrotzak egin ondoren ezartzen dira, eta gauza bera adierazten ez duten arren, jendeak nahasi egiten ditu sarritan.
- B. Gako nagusietakoa da arrisku-eremutik kanpo jartzea, hau da, 5 °C eta 65 °C arteko temperatura tartetik kanpo, non bakterioak azkarrago hazten diren.
- C. Gogoan hartzekoa da elikagai asko, giroko temperaturan edukitzekoak izan arren, hozkailuan sartu behar izaten direla behin ireki ondoren.
- D. Horren guztiaren ondorioz, ezin dugu ahaztu elikagaiak eskuetan erabiltzeko orduan higijene ona izatea temperatura egokia izatea bezain garrantzitsua dela.
- E. Batez ere, produktu pasteurizatuekin erabiltzen da (esnea, jogurtak...), haragiekin edo hutsean ontziratuekin, arrisku handiko elikagaitzat jotzen baitira.
- F. Hori gerta ez dadin, argi dago denok zertxobait aldatu beharko genituzkeela gure elikagaiak kontsumitzeko, erosteko eta kudeatzeko moduak.
- G. Informazio horrek adierazten du zein egunetatik aurrera has daitekeen produktu bat kalitatea galtzen, baina egun hori pasatu eta gero janda ere, ez du izaten arriskurik osasunerako.
- H. Oso lagungarria izaten da, era berean, asteko menua planifikatzea eta horretarako zer osagai beharko diren zerrendatzea.
- I. Oso lagungarria izaten da data idaztea, elikagai bakoitzari jarraipena egin eta luzaroan ez edukitzeko gordeta

■ **Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:**

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

DUALIA ENPRESA: KOMUNIKAZIOAREN MESEDETAN

Mundua aldatu egin da. Kalean kontinente guztietatik etorritako jendearekin egin daiteke topo nonahi: fruta-dendan, harategian, kafetegian... Ospitale eta osasun-zentroetan ondo baino hobeto dakite hori, ondo ezagutzen dute **17** berriaren jende-aniztasuna. Aldatu egin da Euskal Herria, eta aldatze horrek **18** berriak ekarri ditu.

Hainbat sorterritatik gugana **19** direnak hartzen dituzten profesionalak badakite zer konplikatu den pertsona horiekin ondo komunikatzea, elkarri ulertzea. Badakite hizkuntzaren mugak gainditzea ez dela erraza. Eta horientzat guztientzat aurkitu du **20** Osakidetzak. Batetik, OsasunLingua izeneko sistema dago erabilgarri, eta, bestetik, Dualia enpresak sortutako teknologia-aplikazio berria dute **21** osasun-zerbitzuko profesionalak.

Teknologia berriek sekulako iraultza ekarri dute eta, **22**, pertsonen arteko komunikazioa ere izugarri aldatu da. Aldaketa horiez guztiez **23**, Osakidetzak Dualia enpresaren teknologiaz baliatzea erabaki du, eta pertsonak hobeto zaintzeko sistema ezarri du, berehalako itzulpenak egiteko gai den zerbitzua. Sanitarioaren eta pazientearen arteko komunikazioa hobetu egin du itzulpen-zerbitzu berriak, **24** egin du sanitarioaren lana eta diagnostiko zehatzagoak egiteko aukera eskaintzen die profesionali.

Dualiaren aplikazioa erabiltzea oso erraza da. Berrogeita hamaika hizkuntza menderatzen dituen itzultzaile-sarea eskaintzen du, eta hizkuntzak ezarri ditzakeen mugak **25** aukera ematen die erabiltzaileei. Sanitario batek pazientea ulertzeko arazoak dituenean, sakelako telefono batez harremanetan jar daiteke Dualiaren plataformarekin. Mikrofono zein **26** banarekin pazienteak eta sanitarioak, itzultzailearen bidez, elkar ulertzeko aukera izango dute. Ia bi mila erabiltzaile ditu plataformak, eta horien artean dira Osakidetzako erabiltzaileak. Ospitale **27** Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zentro garrantzitsuenetan ari dira dagoeneko erabiltzen, eta orain arteko emaitzekin oso gustura daude. Aukera asko eskaintzen ditu; gainera,

sanitarioa jar daiteke harremanetan pazientearen **28** herriko konfiantzazko mediku batekin, edo beste edonorekin, zerbitzu onena eskaintzeko.

Bi mila eta hamargarren urteko otsailean jarri zuen **29** Osakidetzak Dualiaren zerbitzu hau. Guztira ehundik gora aparatu banatu zituen ospitale eta osasun-zentro nagusietan. Ospitale handietan hiruna tresna jarri zituen, eta txikiagoetan bina edo bana. Asmoa zen osasun-gune guztietara iristea, eta Osakidetzak hori betetzea lortu du. **30**, iristeko zailtasuna egon daitekeen tokietara ere eraman daiteke aparatua, leku horretatik gertuen dagoen anbulatorioetik edo ospitaletik. Horrelako kasuetan, **31** eramaten du aparatua, baseri edo landa-auzoetara. Guztira ehun eta berrogeita hamar telefono edo aplikaziorako aparatu daude Osakidetzako sarean. Orain arteko esperientzia oso ona izan da, hizkuntza-mugak gainditzeko aukera eskaini baitie gehienetan sanitarioei; **32**, Osakidetzako profesionalak eskainitako zerbitzua hobea izan da, ezbairik gabe.

Arlo zientifikoan eta teknologikoan adituak diren edo ondo **33** dauden itzultzaileak eskaintzen ditu Dualia enpresaren zerbitzuak. Bost urteko esperientzia du osasun-arloan Madrilen, Andaluzian eta Katalunian, besteak beste, eta oso garrantzitsua da itzultzaileek erabiltzen duten terminologia. Medikuntza-arloko hizkuntza ulertzea ezinbestekoa da itzultzailearentzat, pazienteari berak **34** behar baitio zer arazo duen. Kalitatezko eskaintza egitea ezinbestekoa dela ondo baino hobeto dakite, eta orain arteko esperientzia oso ona izan da Euskadiko osasun-zentroetan.

ETXABE, Gorka. OSATUZ. 2011ko maiatza. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

17. a) elkarte
b) gizarte
c) eskualde
d) mankomunitate

18. a) arerio
b) mailegu
c) ohitura
d) bilkura

19. a) bidali
b) itzuli
c) gerturatu
d) aldendu

20. a) xedea
b) premia
c) gabezia
d) irtenbidea

21. a) ikusgarri
b) eskuragarri
c) erakargarri
d) aldagarri

22. a) hala ere
b) horren ondorioz
c) berriz
d) horrezkero

23. a) jabetuta
b) mintzatuta
c) entzunda
d) ahaztuta

24. a) erraztu
b) gogortu
c) oztopatu
d) nahasi

25. a) arakatzeko
b) eraikitzeke
c) oztopatzeko
d) gainditzeko

26. a) bozgorailu
b) gordailu
c) juntagailu
d) entzungailu

27. a) nahiz
b) ere
c) baita
d) hala

28. a) legezko
b) ustezko
c) berezko
d) jatorrizko

29. a) dantzan
b) abian
c) auzian
d) aurka

30. a) Hala ere
b) Betiere
c) Izan ere
d) Baita ere

31. a) bezeroak
b) pazienteak
c) ikertzaileak
d) sanitarioak

32. a) hortaz
b) berriz
c) horrez gain
d) bestela

33. a) ikertuta
b) araututa
c) jantzita
d) helduta

34. a) agertu
b) azaldu
c) urratu
d) miatu

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Administrazio langilea zara eta janaria etxetik eramaten duzu lanean bertan bazkaltzeko. Duela bi hilabetera arte bulego ondoan bazenuen horretarako gela bat, baina berritze-lanak egiteko itxi zuten. Bi hilabeteotan nola edo hala moldatu zara, baina ez duzu lanetan aurrerapen handirik ikusten.

Idatz iezaiozu zure arduradunari egoeraren berri emateko, sortzen dizkizun eragozpenak azaltzeko eta lehenbailehen arazoari konponbidea eskatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Euskal Herrian jaiegunetan denda guztiak daude itxita, baina gero eta gehiago dira egun horietan gurera hurbiltzen diren turistak. Denda baten jabea zara eta herriko Dendarien Elkartean askotan eztabaidatu duzue zer egin. Batzuek egoki ikusten dute jaiegunetan dendak zabaltzea, batez ere, krisi-garai honetan.

Herriko aldizkarian zeure iritzia ematea erabaki duzu. Horretarako, azaldu herriko dendarien gaur egungo egoera, jaiegunetan dendak zabaltzeak zer ekar dezakeen eta zure iritzia eman .

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- 1. ariketa: aukeratu erantzuna.
- Irakurraia: «Hegoak ebaki dizkiete»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	C	5.	B	6.	C
7.	B	8.	C		

- 2. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- Irakurraia: «Elikagaiak seguruago kontsumitzeko eta etekin hobea ateratzeko»

Hutsunak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	F	H	C	A	E	G	B	I

Soberakoa	D
-----------	---

- 3. ariketa: hutsunak bete.
- Irakurraia: «Dualia enpresa: komunikazioaren mesedetan»

17.	B	18.	C	19.	C
20.	D	21.	B	22.	B
23.	A	24.	A	25.	D
26.	D	27.	A	28.	D
29.	B	30.	C	31.	D
32.	A	33.	C	34.	B